

Saseta defentsa sistema, «ordukoak kontatzeari behar zaio ekin»

‘Saseta defentsa sistema: armatutako erresistentzia antifaxista Adunan, Asteasun era Zizurkilen’ liburua, Euskal Herriko erresistentzia antifaxista esanguratsua ezagutzera eman nahian //6-7



JON MIRANDA

LARRAUL EUSKARAZKO 265 BINILO ENTZUNGAI

Larraulgo Dina 7 taldeko Koldo Jauregik urteak eta urteak pasa ditu binilozko euskarazko diskoak biltzen; urtarrilaren 6a bitartean Larraulgo Ekomuseoan egongo dira guztiak, ikusteko eta baita entzuteko ere //3

Hainbat onura ekarriz, haur eskola lekuz aldatu dute Amezketan

Duela hilabetetik herriko plazan dagoen lokal batean dago haur eskola berria; honez gain, Beltzaren plaza ondoan dagoen haur parkea ere berritu du Amezketako Udalak //2



Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com



Imaz bertsolariak landatu zuen pagoak 180 urte bete ditu. ATARIA

Imazen pagoa, Europako Zuhaitza Sariaren lehian

Erredakzioa Altzo

Imaz bertsolariak orain dela 180 urte landatu zuen pagoa 2017ko Europako zuhaitz berezia izateko lehiaketan parte hartzen ari da. Altzoko pago motz horrek Eusko Jaurlaritzaren zuhaitz bereziaren izendapena jaso zuen 1997 urtean, eta lehiaketa horretan parte hartzeko aukeratua izan da erkidegoan dauden 30

zuhaitz berezien artetik. 2017ko Europako zuhaitz bereziaren saria jasotzeko, lehenbizi Espainiako estatuko lehiaketa irabazi behar du. Bederatzi zuhaitz ari dira parte hartzen lehiaketa horretan. Bozketa bidez egingo da aukeraketa, eta parte hartu nahi duenak www.arboleuropeo.es webgunean du horretarako aukera. Azaroaren 6an bukatuko da botoa emateko epea.

Lehiaketa hori zertan datzan eta aldi berean zuhaitz berezi horri buruz azalpenak emateko Kultura Batzordeak hitzaldia antolatu du, urriaren 27an, 19:00etan, udaletxean. Bertan izango dira Valentin Mugarza Foru Aldundiko teknikaria eta Pilar Zubiarrain herritarra. Kultura Batzordetik azaldu dutenez, «gure ondarea ezagutzeko aukera paregabea izango da».

Ekologista eta natur taldeak, Aralarren pista egitearen aurka



Pista egiteko lanak hasi direla esan dute Landarlan natur taldetik. LANDARLAN

Aralartik ibilaldi interpretatiboa antolatu dute iganderako, Larraizko langatik abiatuta

Imanol Garcia Landa

Landarlan natur taldeak agerraldia egin du, Aralarren pista egiteko asmoaren aurka azalduz. Enirio-Aralarko Mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Saltarrirako pista proiektua dela-eta egin du agerraldia. «Mendizerraren bihotzeraino iritsiko litzatekeen ia 4,4 km-ko pista da», azaldu dute Landarlanetik. «Aralar natur parkeko Baliabide Naturalen Antolamendu Planak berariaz galarazten ditu lurra harrotzeko lanak, baina, hala ere, foru aldundiak onartu egin du proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketa, lege-eskakizun ugari bete gabe eta proiektuaren inpaktu larriak kontuan hartu gabe: paisaian, lurzoruan, habitatean, lurpeko uretan...».

Baliabide Naturalen Antolamendu Planak zehaztutako azpiegitura-planik «aurrez egin gabe» onartu dela azterketa salatu dute. «Dagoeneko, Gipuzkoako hainbat natur eta ekologista taldeek helegitea ipini dugu foru aldundian pista proiektua bertan behera gelditzeko eskatuz», zehaztu dute. Oraingoz pista soilik Goroskintxuraino izango dela jakin dutela diote, «baina GFAk onartutako proiektu berean oinarrituz». Azken egunetan lanak

hasi direla esan dute, «artzain eta ganaduzaleen sektoreetatik aparte beste inongo eragilerekin adostu gabe». Natur taldetik adierazi dutenez, «Aralar osoa pistez zeharkatzea da asmoa, kontuan izan gabe, Natur Parkea eta Natura 2000ko gunea dela, eta EAEko Paisai Berezi eta Aparteko Inventario-Katalogoan sartuta dagoela».

Landarlanetik azaldu dutenez, «gizartean zabaldurik dago artzaintza bezalako ofizio zahar baten bizi-kalitatea bermatzeko desioa, baina badira aztertu ez diren beste hainbat alternatiba: txabolak birkokatzea, beldarkate bidezko garraioa, aire bidezkoa... 2002an Aranzadi Zientzia Elkartek Euskadiko Legebiltzarrean proposatu zuen bezala».

Igande honetan, Larraizko langatik 09:30ean abiatuko den ibilaldi interpretatiboa antolatu dute Eguzki talde ekologistak eta Landarlan Ingurumen Taldeak, Ekologistak Martxan elkarteak lagunduta. Errekonda lepora, Ausa Gaztelu azpira, egingo dute ibilaldia eta iraupena hiru ordu eta erdikoa izango da. «Ibilaldian hainbat biologo eta herritarrek azalpenak emango dituzte Aralarko ondareaz eta arazoez», azaldu dute, eta ibilaldian parte hartzea eta erantzukizuna parte-hartzailearen ardurapean egongo dela gaineratu. Ondorengo elkarteek babestu dute ibilaldia: Naturkon Gipuzkoako natur eta ekologista taldeen koordinakundea, Ordiziako Mendizaleak, Usurbilgo Andatza, Donostiako Bidebieta eta Irungo Erlaitz.



'BASERRIKO BEGIRADAK' ERAKUSKETA

EBELen emakume nekazarien Baserriko begiradak erakusketa ikusgai dago Orendaingo kultur etxean, 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, bihar arte. Ekimenaren helburua emakume baserritar profesionalak ikustaraztea da, lan egiten agertzen diren emakumeen irudien bitartez. ATARIA

IRAGARKI LABURRAK

Alokagai

Taberna. Martxan den taberna-jatetxea alokatzen da Tolosan. Jende euskalduna bilatzen da. Informazio gehiagorako: 607 69 04 03 (Mikel).

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.info helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Binilozko 265 disko bildu dituzte Larraulgo Ekomuseoan

Urtarrila arte izango da ikusgai hileko lehen igandeetan edo bestela, txanda eskatuta, bisita gidatuak egin ahal izango dira

Jon Miranda Larraul

«Bilduma ez da astebetean egiten. Urteak behar dira horretarako». Larraulgo Dina 7 taldeko Koldo Jauregiren (Larraul, 1956) hitzak dira. Herriko Ekomuseoan datorren urteko urtarrilaren 6ra bitartean, 265 binilozko disko erakutsiko dira, guztiak euskarazkoak eta urteetan zehar bildutakoak. «Bildumagileak beti bilatzen aritu behar du, kuriositatea behar-beharrezkoa du».

Gaztetatik datorkio musikarekiko zaletasuna Jauregiri. «Etxeko ukuiluan irrati txiki bat izaten zen eta hantxe entzuten genituen lehenengo kantuak. Gero gaztetan, aurreneko kantaldiak izaten zirenean haietara joaten ginen kaikua jantzita». Binilozko diskoekin batera, gitarra bat, txistu bat, 80ko hamarkadako soinu bat eta kaikua jarri ditu erakusketan.

70ko hamarkada du obsesio larrauldarrek eta garai hartako objektu, jantzi eta musikak begi kolpe batean identifikatzen ditu, «nire gazte aroa izan zen hura eta erraz atzematen diet garai hartakoei». Diskoen azalek arreta emanda hasi zen bilduma osatzen eta 265 binilo jaso ditu. «Dauden guztiak ote diren? Mundu mailan ibiltzen den bildumazale bati kontatu nion euskarazko diskoetan nuen interesa eta zenbat nituen esan nionean, 'ia gehienak badauzkak' erantzun zidan». Oraindik ere mordo bat falta zaizkiola uste du Jauregik. «CDen moda hasi zenean jende askok biniloak bota egin

zituen, baina oraindik ere badira batzuk. Euskarazkoei, gainera, duela gutxi arte ez zitzaien estimu handirik egiten. Orain, bildumazale batzuk hasi dira arreta jartzen, ikusita euskarazko biniloak gutxi direla».

ALTXORRAREN BILA

Merkatu txikietan, truke merkatuetan eta mundu horretan ibiltzen den jendearekin harremanetan jarrita eskuratu ditu diskoak Jauregik. «Interneten ere jartzen dituzte salgai. Batzuk akaso haserretu egingo zaizkit baina esango nuke garesti ateratzen dela. Garraio saria ordaindu behar izaten da eta bermerik ez duzu izaten nola iritsiko ote zaitzun diskoa». Ekomuseoan ikusgai diren diskoetako asko garbitu eta egokitu behar izan dituzte, asko zikinduta aurkitu dituztelako.

Urte asko dituzten diskoak dira horietako asko. Zaharrena noizkoa? «1965 edo 1966 urteen barruan egongo dira bizpahiru binilo, Lourdes Iriondo eta Benito Lertxundik atera zituztenak». Disko txikiak dira, *single* bezala ezagutu izan direnak eta 45 biratan erreproduzitzen direnak. Horrelako mordo bat bildu dituzte Larraulgo Ekomuseoan, baina gehienak, hala ere, 33 biratakoak dira.

50 urte baino gehiagoko diskoak izanik erakusketan bildutako asko, zailak dira aurkitzen. «Pare bat binilo eskuratu nahian urteak eman ditut eta kasualitatez, etxeko ganbaran aurkitu nuen horietako bat». Bestea, ordea, es-



Koldo Jauregi larrauldarrek eman zituen azalpenak inaugurazioan. J.M.



Single edo binilo txikiak ere jaso dituzte Larraulgo Ekomuseoan. J.M.



Martin Aginagaldek, Iturbiderek 1979an grabatu zuen biniloa jaso zuen. J.M.

pezializatutako azoka batean eskuratu zuen urteak haren atzetik ibili ondoren: 1977an Iñaki Eizmendik kaleratu zuen *Gureak ez diren kale ixilean bi milagarren samiña*.

LARRAULDARREN BINILOAK

Azkeneko zortzi urteak beste binilozko disko bat eskuratu nahian eman ditu Jauregik. Martin Aginagaldek, Iturbiderek batera 1979an kaleratu zuena. «Herrikoa dugu Martin eta asko-

tan galdetzen zidan binilo horren berri ba ote nuen. Kosta zait aurkitzea baina azkenean lortu dut. Erakusketaren inaugurazio ekitaldira etorri gero oparitan emango niola esan nion eta emandako hitza bete dut».

Ilusioz jaso zuen oparia Aginagaldek. «Gure jaiotetxea, Elizegi, erre egin zitzaigun eta han nituen binilo asko galdu egin nituen. Beti izan dut hau eskuetan izateko kapritxoa». Larraulgo garai hartako irudi bat ageri da dis-

koaren azalean eta panderoan lagun du Azpeitiko Imanol Arregi *Iturbide*. «Urte hartan atera nuen txapela, baina kasu hartan osabarekin, amaren anaiarekin, Egañazpirekin. Bigarren Txapelketa Nagusi bat ere irabazi nuen, 1981ean». Azken urteak soinu utzita eman ditu Martin Aginagaldek, baina osasun arazo batzuk gaudituz ondoren, taldea osatu eta berriz ere trikiti munda itzultzekotan da.

Ekomuseoan jarritako erakusketan Martin eta Iturbiderek diskoak toki pribilegiatua du baina baita Pablo Soroza baten lanek ere. «Jaio ez zen hemen egin baina aita hemengoa zuen eta beraz, guk Soroza baidarrak larrauldarrek direla kontsideratzen dugu», dio Jauregik.

KLASE GUZTIETAKOAK

Musika klasikoko biniloekin batera, estilo guztietakoak aurki daitezke erakusketan. Soinu handi eta txikiarekin osatutakoak, talde lanak, bakarkakoak, baita umeentzako 20 bat disko ere. Bertsoak biltzen dituzten binilozko diskoak ere topatu daitezke Larraulgoan. Jauregiren esanetan, «binilozko disko hauek baino lehenagokoak dira arbeleko diskoak eta diotenez, ba omen da bat Txirritarena». Larrauldarrek ez du hori bilatzeko ahaletik egin, «gero arbeleko diskoak erreproduzitzeko gramofonoa behar baita».

Museo etnografikoan jasotako binilozko disko guztiekin batera, bi erreproduzitzailer ere ikus daitezke, bata 70ko hamarkadako eta bestea 80koa. «*Tocadiscos* hauek konpondu behar izan ditut ondo entzun ahal izateko. Lehen beraiekin ekartzen zuten anplifikadorea, baina hauei erosi egin behar izan dizkiet. Bozgorailuak ere propio erositakoak dira».

Gauza asko hartu behar dira kontuan biniloak berekin dakarren soinu ondo entzun ahal izateko: jogailua, orratza, anplifikadorea, bozgorailuak... Baina behin lortuta, soinuaren kalitatea «izugarria» da, «horregatik ari dira nazioarteko hainbat musikari formatu hau berreskuratzen».

Larraulgo Ekomuseoan ere entzun ahal izango da biniloaren kalitatea. Antolatzaileei eskatuz gero ikusgai dauden diskoak jarriko dituztelako disko-biragailuan. Hileko lehen igandeetan goizez irekita egoten da museoa eta taldea bisita gidatuak egin ahal izango dira, aurrez Dina 7 taldekoei abisua emanda, 688 803 608 telefonoan.

Hernialdera Rolleski Igoera egingo dute, larunbatean

TOLOSA // Alpino Uzturre Elkar-teak antolatuta Hernialdera Rolleski Igoera egingo dute larunbatean, urriak 22. Belate auzotik aterako dira 16:00etan eta bukaera Hernialdeko plazan egongo da. Rolleskia fondoko eskia asfaltuan egiteko egokitzapena da eta Gipuzkoa, Nafarroa, Aragoi eta Madrilgo partaideak espero dituzte antolatzaileek.

Gaur hasiko dute ikasturtea Ibarra Martxanekoek

IBARRA // Udako geldialdiaren ondoren gaur hasiko dute berriz, Ibarra Martxan ekimena. 11:00etan abiatuko dira Emeterio Arreseko parketik. Heldu, ezindu eta atzerritarrentzat zuzenduta dago eta iaz bezala, ostegunero bilduko dira. Jarduera honek bi helburu ditu: osasuna zaintzea paseatuz eta elkarrekin sozializazioa hobetzea. Iaz hasi ziren biltzen eta 12 ibilaldi egin zituzten 105 parte-hartzaile bilduz. Bataz beste, asteen, 51 lagun elkartu ziren.

Gabonetako apaingarriak egiteko material bilketa

IBARRA // Energia kontsumoa murrizte aldera, Ibarako Udalak azken urteotan neurri bereziak hartu ditu Gabonetako argiteriaren inguruan. Aurten ere asmo berarekin dabilta eta apaingarriak egiteko materiala herritarren laguntzarekin bildu nahi dute. Ur botila hutsak (handiak eta txikiak) jaso nahi dituzte eta hauek udaletxean jasoko dituzte urriaren 31a bitarte, 09:00etatik 14:00etara.

‘Ulises’ itzultzean hartutako erabaki ausartek saria izan dute

Xabier Olarra Lizaso itzultzaile eta editore tolosarrak jaso du literatur itzulpenaren Euskadi Saria James Joycek 1922an idatzitako ‘Ulysses’ lana euskarara ekartzeagatik.



Erredakzioa Tolosa

Xabier Olarra Lizasok (Tolosa, 1953) jaso du literatur itzulpenaren Euskadi Saria. Hiru urteko lanaren ostean argitaratu zuen *Ulises* (Igela, 2015) eta lan hori itzultzeagatik jaso du izendapena. Atzo jaso zuen saria eta ekitaldian itzulpenaren konplexutasunak nabarmendu zituen: «Lana zer den azaltzeko nik lau, zortzi edo hamar ordu beharko nituzke eta hala ere, ez nuke lortuko urrutitik ere adieraztea irakurritak zer irudikatzen den». «*Ulises* zer den jakin nahi duenak, *Ulises* irakurri behar du», gaineratu zuen.

Epaimahaikideek lehenik eta behin lehian egon diren lanak goraipatu zituzten; «uzta ederreko urtea izan da, eta atsegin handiz hartu du epaimahaiak halako lan bikainen artean aukeratu beharraren neke gozoa». *Ulysses* obra «izugarria» dela esan zuten, «zentzu guztietan, bere zabalean eta bere konplexuan». «Obra hau euskaraz edonola ematea ere, ez

zen dema makala, baina auzo-erdaretako bertsioak berdintzen eta inoiz are gainditzen dituen egokitasun miragarri batez emana datorkigu itzulpen honetan. Tarteka ausartak dira itzultzaileen erabaki batzuk, baina nekez irudika liteke nola heldu bestela testuaren koska latzei», esan zuten. Edizioa bera «oso zaindua» dela gaineratu zuten.

ASPALDIKO NAHIA BETEZ

Tolosarrak itzulpena aurkezterakoan esan zuenez, James Joyceren eleberri mardula euskara ekartzeko asmoa ez zen berria. «Mitoaren maila lortua duen liburuari heltzeko garaia heldua izana zitekeela pentsatzen hasi ginen batzuk orain dela hamabosten bat urte», esan zuen. 2012an hasi zen itzulpenarekin, eta hamar urteko epea eman zion bere buruari, nahiz eta hiru urte behar izan azkenean. «Kalkulu bat egin

nuen, nire asmoa inolako presarik gabe hartzea zelako. Pentsatu nuen egunean 500 karaktere itzuliz gero, alegia, lau txiok ematen dutena, 2022rako prest edukiko nukeela, hau da, argitaratu zeneko mendeurrenean. Noski, horiek ez dira benetako kalkuluak. Halako obra bati heldu behar badiozu benetan heldu behar diozu, eta egunean zortzi edo hamar ordu eskaini».

Ez da Olarrak sari hau bera jasotzen duen lehen aldia; 2012an *Jakobian eraikinaren* atatik eman zioten saria Arantzazu Rojorekin batera, eta 2006an *Estilo ariketak* lanarengatik.

Aurtengoan Luis Garde iruindarra izan da euskal literaturako Euskadi Saria jaso duena *Ehiztarien isilaldia* lanarengatik eta Gabriela Ibarrek gaztelaniazko literaturaren saria eskuratu du, *El Comensal* liburuarengatik.



Odol emaileen lana goraipatuz

Erredakzioa

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartek urtero diploma eta domina banaketa egiten du odol emaileen artean. Zonalde bakoitzak berea egiten du, eta igandean, urriak 23, Oria Beheko Ordezkaritzak egingo du ekitaldi hori. Bertan kokatzen dira odol emaileen taldea duten eskualdeko herri gehienak: Anoeta, Asteasu,

Berastegi, Villabona, Ibarra, Iruia eta Tolosa.

Gainera, aurtengo hitzordua antolatzearen ardura ere eskualdeko hiru talderi egokitu zaie: Berastegi, Ibarra eta Tolosa. Odol emaileak Urnietako Oianume sagardotegian bilduko dira eta bertan dominen banaketaz gain, ospakizuna borobiltzeko bazkaria egingo dute.

Odol emaileen elkartearantz

hitzordu garrantzitsua izaten da honakoa, izan ere, bertan elkartearantz ezinbestekoak diren odol emaileei eskerrak ematen zaizkie eta euren eskuzabaltasuna baloratzen da. Konpromiso hori baloratzen da aipatutako domina eta diplomak banatuz, odola 25, 40, 50, 60, eta 70 aldiz eman duten emaileei. Aurten, zehazki, 121 domina eta diploma banatuko dituzte.

Odol emateak beharrezkoak dira pertsona askoren osasunerako, odol hori beharrezkoa baitute. Edonork izan lezake inoiz horrelako beharren bat, baita gutxien espero duenak ere. Horrengatik, elkartetik odol emaileen ekarpena goraipatu nahi da eta odol emaile berriei dei egin nahi zaie odola ematera animatzeko, gazteei deialdi berezia egin dietarik.

GUTUNAK

Urriaren 26ean ikasle Greba Orokorra. Kanpora errebalida frankistak!

Lau urte murrizketa basatiak egiten egon ondoren, Alderdi Popularrak erasora jo du beste behin gazte eta langile familien aurka. Udako hilabetetan, Rajoyren gobernuak dekretuz eta ezkutuan, hamarkadetan izan den hezkuntza publikoaren aurkako erasorik handiena onartu du: errebalida frankistak indarrean jartzea. Helburua argia da: familia xumeetako milaka gazte hezkuntza sistematik kanporatzea.

Zer dira errebalida frankistak eta nola eragiten digute? Errebalidek egungo selektibitatea hirukoiztea suposatzen dute eta izugarri gogortuko ditutitulu bat eskuratzeko baldintzak:

DBH 4ko errebalida: gainditzen ez duenak ezingo du Batxilergora joan eta ez du DBHko titulua ere jasoko, nahiz eta irakasgai guztiak gaindituak eduki. Honek lan merkatura titulaziorik gabe ateratzea suposatuko luke.

2. Batxilergoko errebalida: gainditu ezean ezingo da unibertsitatera joan eta ez da Batxilergoko titulua eskuratzeko irakasgai guztiak gaindituak eduki arren eta lan merkatura DBHko titulua hutsarekin bakarrik aterako da.

Unibertsitaterako sarbide errebalida: azkenik, legeak irekita uzten du hirugarren selektibitate baten aukera unibertsitate bakoitzaren kontura.

PP eta EAJ aliatuak hezkuntza publikoa suntsitzeko. Errebalidek ez dute hezkuntza kalitatea hobetzea helburu, filtro gisa erabili nahi dituzte familia xumeetako ikasleak ahalik eta azkarraren eta inolako kualifikaziorik gabe lan merkatura jaurtitzeko. Erasoa honen oinarrian PPe defendatzen duen eta EAJk guztiz bat egiten duen eredu soziala dago: gehiengoarentzat prekaritatea eta esplotazioa, gutxiengo pribilegiatu bat errege moduan bizitzeko. Urkulluren gobernuak LOMCEari eta murrizketei kontrajarri nahian erabiltzen aritu den erretorika, erabat kontraesanean dago errealtatean aurrera eramanez duen praktikarekin; murrizketak, dirua pribatu-kotzertatuari oparitzea publikoaren kontura, irakasleak kaleratzea eta LOMCEa aplikatzea. Beraiek, PPK bezala, langile familiei hezkuntza eskubidea kentzea dute helburu.

Urriaren 26ean denok grebara! Ikasle Sindikatutik eta Euskal Herria Sozialistatik matxinadara deitzen dugu gazteria, datorren urriaren 26ean ikasgelak hustuz eta kaleak manifestazio masiboetan betez. Dei egin nahi diegu Ikasle Abertzaletako kideei eta hezkuntza komunitatearen osotasunari, denak batera atera gaitzen eta hau lehen pauso handi bat izan dadin borrokan, errebalidak eta LOMCE atzera botatzeko.

Manifestazioak 12:00etan izango dira, Donostian Bulebarretik aterata.

Iker Otermin eta Laura Spearey Euskal Herria Sozialistako eta Ikasle Sindikatuko kideak

Haur eskola berriak bete du bere lehen hilabetea martxan

Lekuz aldatzeak hainbat onura ekarri dituela azaldu dute haur eskolako hezitzaileek

Imanol Garcia Landa
Amezketak

Hilabete baino gehiago daramate Amezketako Haurreskola berriari martxan, herriko plazan dagoen lokal batean. Miren Egunez eta Ainara Urtizberea dira bertako hezitzaileak eta aldaketa hoberako izan dela azaldu dute: «Lehen ere ondo geunden, baina egia da behe solairu batean egoteak abantailak ematen dituela».

Aurreko haur eskola lehen solairu batean zegoen, behin-behineko egoeran. «Lehen solairuan egoteak ere bazituen laguntzen ez zuten ezaugarri batzuk», azaldu du Egunezek. «Asko muga-

tzen zigun bai haurrekin kalera ateratzeko, bai gurasoak haurrekin etortzeko, eta baita larrialdi egoera batean atera behar izanez gero ere. Hau da, irisgarritasun aldetik bere mugak zituen».

Orain hainbat onura ditu leku berriak. «Haur eskolarentzako terraza dugu, guretzako. Eta gero bertan dugu plaza, eta frontoia gertu dugu. Beraz, zoragarri. Lehenengo egunetik hasi gara aprobetxatzen hori», esan du Urtizberek. «Eguraldi ona dagoenean eta egoki etortzen bazaigu antolakuntza aldetik, bai bertako gure terrazara ateratzen gara, eta plazara eta frontoira ere joaten gara», gaineratu du Egunezek. «Iruditzen zaigu oso garrantzitsua dela haurrekin kalera ateratzea adin hauetan. Beraz, ahal dugun gehienetan saiatzen gara ateratzen». Haurrei ere nabaritzen zaie kanpora ateratzea gusatzatzen zaiela, Egunezek esan



Herriko plazako lokal batean dago haur eskola. I.G.L.

duenez: «Haurrak atera hurbiltzen dira, eta eskatzen dute atera nahi dutela».

Gurasoen aldetik ere aldaketa-ekin «pozik» daudela dio Urtiz-

berek: «Batetik, aurreko mugak ez daude, eta orain kanpora ateratzeko ere dugun aukera horiengatik. Bestetik, orain beraiek aukera dute haurrak nola dabil-

tzan ikusteko, haurraren bila etortzen direnean, eta lehen ez zuten aukera hori. Asko baloratzen dute hori».

Aurreko lekutik faltan botatzen dute errekaen soinua Egunezek eta Urtizberek. «Atzetik pasatzen zen erreka, logelaren ondoan, eta errekaen hotsa entzutea faltan botatzen dugu». Halere, garbi dute lekuz aldatzea hoberako izan dela, eta prozesu horretan udalaren eta gurasoen aldetik egindako eta egiten ari diren lana eta erakutsitako presuntasuna eskertu dute.

Haurreskolak Partzuergoko kidea da Amezketakoa. Taldekatzea dute, hau da, 0-2 urte arteko haurrak daude bertan, eta hamar plaza dituzte. Gaur egun sei haur daude eta orain urrian izan den matrikulatze epean beste bi haurrek izena ematen dute. Beraz, zortzi izango dira abendutik aurrera. Urtarrila eta maiatza dira izena eman daitekeen beste bi garaiak.

Partzuergoak eskaintzen duen ordutegia 07:30etik 17:00ak arte da, eta gutxienez hiru haurren familiek eskatuz gero, 18:30ak arte luzatu daiteke. Gero, taldearen beharren arabera zehazten da ordutegia.

Jolastokia berritu dute

Erredakzioa Amezketak

Amezketako Beltzaren plaza eta Abaltzisketara igotzeko bidearen arteko jolastokia berritu du Amezketako Udalak. Obren helburua da haurren segurtasuna «bermatzea», eta 22.000 euroko aurrekontua izan du lanak burutzeko. 2002. urtean eraiki zen jolastokia. «Urteak pasa ahala, jolastokiko elementuak desgastatu egin dira eta elementu horiek ez zituzten betetzen gero eta zorrortzagoak diren segurtasun

neurriak», adierazi dute Amezketako Udaletik.

Herritarren segurtasuna «bermatzea» da udalaren ardura nagusietako bat. Horrela, udal arduradunak harremanetan jarri ziren jolastokien hornikuntzaz arduratzen diren enpresa batzuekin. Enpresa bakoitzak egitasmo bat aurkeztu zuen, eta udalak Electro Talleres Zarauz enpresari esleitu zion horniketa: 22.175,97 euroko aurrekontua izan du.

Jolastokiak 120 metro karratu-

ko azalera leuna du oinarri, eta lau elementu izango ditu: bi kulunka eta bi multzo, txirrista eta hodiez osatuta. Multzo horiek lokarri eta irudiak dituzte, eta sei urte arteko haurrek erabil ditzakete. Kulunkak, berriz, 13 urte arteko herritarrek erabiltzeko aukera dute. Udalak deia egin die herritarrei erabilpenerako adina errespetatzea, jolastoki berria ahal den modurik egokienean erabil dezatela, eta ingurua garbi mantentzea, bertan dauden paperontziak erabiliz.



Jolastokiak eraberritu ondoren duen itxura. ATARIA

sarrerak

Atarikideentzat
sarrera pare bat dugu

MAURIZIA
Aukeran dantza taldea
EMANALDIA

Urriak 21, ostirala • 20:30ean
Tolosako Leidorren

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak** arte:
943 65 56 95 edo **www.ataria.info**

Bihar nolako ataria nahiko zenuke?

Lagundu erabakitzen
3 minutu besterik ez dira

Inkesta **ataria.info** webgunean
edo deitu: **943 65 56 95**

Eskerrik asko!

‘Saseta defentsa sistema: armatutako erresistentzia antifaxista Adunan, Asteasun eta Zizurkilen’ liburuaz aritu dira Karlos Almorza eta Jabi Buces egileak hiru herrietan egindako aurkezpenetan.

Euskal erresistentzia antolatzen hasi zenekoa

Jon Miranda

Garai ilun, garai gordin; garai zail ta desatsegin; ta ordukoak kontatzeari, behar zaio ekin. Nahiz eta orain eman min, kontuak zabaldu arin, berriro ere, horrelakorik gertatu ez dadin». Haritz Mujika, Asteasuko bertsolariak, herrian egindako *Saseta defentsa sistema: armatutako erresistentzia antifaxista Adunan, Asteasun eta Zizurkilen* liburuaren aurkezpen ekitaldian botatako bertsoa da.

2013tik egindako dokumentazio lana, antolatu diren auzolandegetako aztarnak eta jasotako testigantzekin osatu dute liburua Jabi Buces eta Karlos Almorza, Aranzadi zientzia elkarteak kideek. Libururako testigantza eman zuten asteasuarrak omen du nahi izan zituen udalak urriaren 4an egindako aurkezpen ekitaldian. Horien artean daude Txomin Usandizaga Aranburu *Pipasen* ondorengoak.

Itziar Usandizaga alabak hitz egin nahi izan zuen bertaratutakoan aurrean: «Gaur hemen egiten ari garena, justizia egitea da. Aita gorriak pasatakoa zen eta horrek eragina izan du guregan. Zigortuak izan gara, behin gerra pasata ere». Usandizagaren aita zenak, Txomin Usandizagak, Andazarraten lubakiak egiten lagundu zuen. Ondoren Saseta baitailoian parte hartu eta faxisten eskuetan erori ondoren lau urte eman zituen espetxean. Ibiya baserriko semea zen Txomin Usandizaga eta bere ama zena, «amona Genoveva, 45 urte zituela eta zortzi seme-alaben ama zela atxilotu zuten gudariei lagundu eta janaria emateagatik. Lau hilabetez espetxeratu zuten». Usandizagaren osaba-izebek ere errepresio latza jasan zuten, «Gorogoina baserriko osaba fusilatu egin zuten. Izebei ilea moztu eta Asteasu eta Villabonako kaleeta-



Zarateko Benta inguruan ezarri zuten aginte-kuartela eta erreketeen tropen hainbat eraso eragitzi zituzten gudariek. ATARIA

tik ibilarazi zituzten, umiliatzeko asmoz». Usandizaga familiak poz handia duela nabarmendu zuen Itziar Usandizagak: «Jende honek borroka egin zuen justizia baten alde eta duintasun osoaz aritu ziren. Gure oroimenean hori geratu da, euren duintasuna. Guk ere horrela jarraituko dugu, lepoan hartu eta segi aurrera!».

Aranzadi zientzia elkarteak arduratu da *Saseta defentsa sistema: armatutako erresistentzia antifaxista Adunan, Asteasun eta Zizurkilen* liburuak publikatzeaz eta Tolosaldea Historia bildumaren 20. alea da. Aduna, Asteasu eta Zizurkilgo udalek sustatu dute argitalpena eta Bucesek eta Almorzak hiru herrietan egin diren aurkezpenak baliatu dituzte liburuaren ildo nagusiak azaltzeko.

Lehenik eta behin, bukatu gabeko lana dela aipatu dute egileek. Aurrerapen asko egin dituzte ikerketan eta aurkikuntza asko topatu, «baina oraindik era badago zer argitu». Zentzu horretan, proiektua abiarazten lagundu zuten herritarren aitortza egin nahi izan du Almorzak. Besteak beste, lubakiak lokalizatzen lagundu zuten Joxe Aburuza adunarra, eta Angel Usabiaga *Malli* zizurkildarra izan ditu gogoan eta aitortza egin die Teodoro Hernandorena elkarteari, Mila Iztuetari eta Xabier Lasari (azken hauek *Herio*, 1936 lana kaleratu zuten Maria Angeles Uzkudunekin edukitako elkarriketak jasoz). «Ez gara, beraz, hutsetik abiatu, aurretik bazegoen lan bat egin eta hori jarraitzea dagokigu guri».

Oso denbora gutxian Belkoaindik Andazarratera luzatzen zen defentsa sistema antolatu zuten

Gaur gauza gehiago dakizkitez. Ikertzaileak konturatu dira, garai hartako egunkarietan esaten zenak, frankisten buruzagi militarrek idatzi zituztenak eta auzolandegetan urteotan topatu dituzten aztarnak bat egiten dutela. «Historia eta arkeologia elkar hartuta agertzen zaizkigu hemen, Andatza azpiko mendilerro honetan guztian», esan du Almorzak.

ALTAMENDUARI AURRE EGINAZ 1936ko uztailaren 18ko altxamendu faxistaren ondoren, uztailaren 27an, Bigarren Errepublikaren aldeko indar guztiak batzeko asmoz sortu zen Gipuzkoako Defentsa Batzordea. Momentuko agintariak ordezkatu eta botere berri bihurtu zen, probintziako mugetan gertatu zitezkeen gatazkei aurre egiteko. Gipuzkoako Defentsaren mende zeuden beste bi erakunde sortu ziren handik gutxira, Eibarko

Kandido Saseta milizien komandante-buru izendatu eta 34 egunez eutsi zieten altxatutako militarrei

Defentsa Batzordea eta Azpeitiko. Azken hau, abuztuaren 5ean sortu zen eta euskal nazionalismoko sindikatu, mugimendu eta alderdi politikoak batu ziren bertara: EAJ, EAE-ANV, ELA-STV, Euzko Nekazarien Bazkuna (ENB) eta Gipuzkoako Mendigoizale Batzak (GMB).

1.280 lagun izan zituen nominan Azpeitiko Komandantziak. Bereziki Gipuzkoako, baina Biz-

kaiko eta Arabako ehunka miliziano errekrutatu zituzten eta Kandido Saseta kapitaina milizien komandante-buru izendatu zuten. «Hiru fusil baino ez zituzten hasieran. Ia bitartekorik gabe jardun zuten, milaka militar kolpista eta paramilitar ultraeskuindarre aurre eginez».

Balentria handia egin zuten gudari horiek, 34 egunez eutsi baitzieten Francoren aldeko indarrei. «Erasoko lana baino gehiago, erresistentziakoa egin zuten». Sasetak defentsa sistema ezarri zuen Andatzako mendigunean eta Aduna, Asteasu eta Zizurkil garrantzi estrategiko handiko toki bihurtu ziren Gipuzkoako lurraldea defendatzeko garaian. Oso denbora gutxian, Belkoain mendiko tontorreko ekialdeko muturretik mendebaldeko mugara eta Andazarrateko gaineko hegoaldeko eremura arte luzatzen zen defentsa sistema antolatu zuen Sasetak.

Zelatun, Iturrioz, Andazarrate, Santa Marina ermita, Irumuño, Zarateaitz, Zarateko Benta eta Mareamendi inguruneak biltzen ditu Saseta defentsa sistemak. Ingurune guztiak elkarri lo-

tuta zeuden eta Renoko unibert-
sitatean aurkitutako dokumen-
tuei esker ikerlariak jakin dute
nola egiten zen frontearen hor-
nikuntza eta nola igotzen zituz-
ten gudariak, autobusez Anda-
zarratera. Azken urteotan egin-
dako indusketa arkeologikoen
bidez, lubaki horien zati bat be-
rreskuratu eta gudarien tresna
batzuk eta material belikoa jaso
da.

Zarateaitzeko magalean, Astea-
suko lurretan, zuhaitzetan
egindako grabatuak ere topatu
dituzte. «Grabatuen eta 36ko ge-
rrarekin lotuta eremu hartako
okupazio-faseen arteko erlazioa-
ren bila ari gara. Idazkun horie-
kin lotutako dokumenturik eta
zuzeneko testigantzarik ez dago-
enez, bereziki zaila da haiek in-
terpretatzea. Hipotesi moduan,
mapa mota baten irudikapena
dela bota dezakegu, P.O. letrekin
(jerga militarrean, *Punto de Ob-
servación* esan nahi dute hizki
horiek). Itxuraz, grabatu bakoi-
tzean zeuden eta kokapen ezber-
dinekin; beraz baliteke orienta-
zioaren bat adieraztea». Bakarrak
izan daitezke Euskal Herri osoan
zuhaitzetan egindako inskrip-
zioak eta beraz, babestuak izatea
eskatuko dute.

FRONTEAN HILDAKO LEHENAK

Borroka latzak izan ziren Anda-
tzako frontean, «gau bakar bate-
an 250 kanoikada jaso zituztela
ere esaten du dokumentu ba-
tek». Fronte guztian 100 lagun
inguru hil zirela kalkulatu
dute ikertzaileek eta hori doku-
mentatu nahian dabilta orain.
Mikel Alberdi tolosarra izan zen
Azpeitiko Komandantziak galdu
zuen lehen gudaria, 1936ko
abuztuaren 16an, Bidanian.

Borrokan ari zirela, Asteasu
eta Zizurkilgo lurretan hil ziren,
EAJ-PNVko eta EAE-ANVko le-
hen militanteak, hurrenez hu-
rren. Jose Arana Irastorza, gataz-
kan hildako EAE-ANVko lehen



Santa Marina ermita inguruan erasoaldi bat baino gehiago izan ziren. J.M.



Zuhaitzetako grabatuen eta gerraren arteko harremana ikertzen ari dira. J.M.



Ezkerrean Jose Joakin Egaña (EAJ), eskubian Jose Arana (EAE-ANV). ATARIA

gudaria, Zarateko Benta defen-
datzen ari zela hil zuten. Bere
gorpua Polloen (Donostia) dago
lurperatuta, hainbat itzuli eman
eta gero. «Bere senitartekoekin
egon gara, eta Donostiara iritsi
bitartean hilotzak egin zuen bi-
dearen berri eman digute», aipa-
tu du Almorzak.

Enfrentamenduetan hildako
EAJko lehen militantearen
arrastorik ez dago ordea. Azkoi-
tiarra zen jaiotzez Jose Joakin
Egaña Uria. *Euzkadi* egunkariak
eman zuen gudariaren heriotza-
ren berri, 1936ko irailaren 5ean
eta hiru egun lehenago Santa
Marina ermitan gertatutako era-
soaldi bati egiten dio erreferen-
tzia. Aranzadiko ikertzaileek ar-
gitu dutenez, «1971n Joseba Elo-
segik ermita inguruan izan zen
borrokaldia kontatu zuen eta bu-
ruan jasotako tiro baten eraginez
zauritutako gudari bat aipatzen
zuen. Jose Joakin Egaña izan li-
tekeela uste dugu». Zauritua Astea-
sura jaitsi zutela pentsatzen
dute Almorzak eta Bucesek eta
han galdu zela bere arrastoa.
«Zantzu batzuk baditugu, baina
ez dakigu zehatz non eman zio-
ten lur».

Abuztu bukaeran Belkoain
galdutakoan, Sasetaren mutilek
Zarateaitz mendian ezarri zuten
aginte-kuartela eta erreketeen
tropen hainbat eraso eragotzi
zituzten abuztuaren 29tik iraila-
ren 18ra. Denbora tarte horretan
hondarribiarrak antolatutako
erresistentziak kolpistek eragin-
dako erasoaldia eustea lortu zu-
ten, irailaren 13an, altxatutakoek
Donostia konkistatu zuten arte.
Handik aurrera gertakariak az-
kar gertatu ziren. Hilaren 19an,
Andazarrateko eremua hartu eta
honenbestez, defentsa sistema-
ko mendealdeko mutur osoa
beregianatu zuten altxatutakoek.
Hernion eman zuen Sasetak
erretiratzeko agindua.

Hilabetez eutsi zioten gudari
horien balentria ezagutzera

eman nahi dute Asteasu, Aduna
eta Zizurkilgo udalek kaleratuta-
ko liburuarekin. 36ko gerraren
testuinguruan, Euskal Herriko
erresistentzia antifaxista esan-
guratsua izan zen, Peña Lemoa
edo Intxorta mendietan, esate
baterako. Baina Aranzadi zien-
tzia elkarteak burutzen ari den la-
nak erakusten du Andatzako
magalean ezarritako defentsa-
sistemak, altxamendu militarra-
ren aurkako euskal erresisten-
tziaren lehen harria jarri zuela.
«Memoria historikoan ahaztuta
egon den tokia den arren, borro-
ka handiak gertatu ziren, bikti-
ma ugari eragin zituen eta eremu
honetako biztanleen eguneroko
bizitza hautsi zuten. Toki hone-
tan hil ziren EAE-ANVko eta
EAJko lehen borrokalariak. Ho-
rregatik guztiagatik da garran-
tizkoa hemen gertatu zena».

34 egun haiek erabakigarriak
izan ziren. Handik egun gutxi-
ra, -urriaren 1ean eta gerra hasi-
ta zegoela- Valentzian eratutako
Espainiako Bigarren Errepubli-
kako gorteek Euskadiko lehen
autonomia estatutua onartu zu-
ten eta, besteak beste, Aduna,
Asteasu eta Zizurkilgo mendie-
tan gudari haiek eutsi ziotelako,
zin egin ahal izan zuen Jose An-
tonio Agirrek lehendakari kar-
gua, Gernikan, urriaren 7an.

80 urte geroago osatzen ari ga-
ren errelatoan, gure eskualdeak
badu partea.

BISITA GIDATUA, LARUNBATEAN

Asteasuko plazan 09:30ean geratu
dira lubakietara igotzeko. Zuzenean
gerturatu nahi duenarentzat,
10:00etan egin dute zita Saskarate
baserrian.

Karlos Almorzaren eskutik luba-
kiak bisitatuko dituzte eta Zarate-
aitzen magalean dauden zuhaitzak
ikusiko dituzte.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



OSTEGUNA, 2016KO URRIAK 20
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.info
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.info

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaledea@ataria.info
Ibarraledea: 687 410 118. ibarraledea@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.info
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.info
Bezero arreta zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.info

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Trikiti doinuak hauspotzeko saioa

Ander Malbadik gidatzen du 'Hauspo artean' saio berria 'Ataria' irratian; astero gonbidatu berezi bat izango du alboan



Txomin Azpiroz '(H)ari naizela' saioa ikasturteko lehen gonbidatua izan da irrati estudioan. 'Hauspo artean' saioa Ander Malbadiren bigarren gonbidatua, aldiz, Iker Goenaga trikitilaria izan da. ATARIA

Erredakzioa

ATARIA irratia bere ibilbidean pauso berriak ari da ematen, eta iazko bertso saioari, aurten, trikiti doinuak ardatz izango dituen saioa gehitu zaio: *Hauspo artean*. Ander Malbadi albizturarrak hartu du gidaritza, eta dagoeneko eginak ditu bi saio.

Ander Malbadi izango du ardura astero-astero, gonbidatu bat lagun hartuta musika jartzeko. Lehen gonbidatua Asier Unsain izan zuen, bigarrena Iker Goenaga eta aste honetako larunbateko saioan, Maite Alustiza izango du trikiti doinuen bidelagun. Gonbidatu bakoitzak zazpi kantu aukeratzen ditu, bere ibilbidea errepasatuz. Astelehen ere entzun ahal izango da.

BERTSOEK, JARRAIPENA

Iazko bideari jarraitzen dio Imanol Artola *felix*-ek, '(H)ari naizela' bertso saioa eginez. Hau posible da TOLOSALDEKO ATARIA, Harituz Bertsozale Topagunea eta Xepelar Dokumentazio zentroaren

arteko hitzarmenari esker. Eta estaerako, larunbateko saioan, Jexux Mari Irazu larrauldarra izango du gonbidatu, eta *Suton-dotik* atalerako bertsoak, berri, Imanol Irazustabarrena alegiarak jarriko ditu.



ataria
Irratia

107.6 fm
www.ataria.info

LARUNBATAK 12:00etan
ASTELEHENAK 20:00etan

Hauspo artean. Ander Malbadi albizturar trikitilariak gidatzen duen saioa da. Trikiti doinuak ardatz hartuta osatzen du saioa gonbidatuak aukeratutako zazpi abestirekin.

LARUNBATAK 14:00etan
ASTEAZKENAK 20:00etan

(H)ari naizela. Imanol Artola 'felix' amezkatararen gidaritzapean, bertsoek eta eskualdeko bertsoari ere bere tokia dute bigarren urtez jarraian, ATARIA irratian.

OSTEGUNA 20

AGENDA

Deialdiak

Ibarra. Udako geldialdiaren ostean, Ibarra Martxan ekimena berriz hasiko da. Herriko adineko guztiak animatu nahi dituzte parte hartzera, 11:00etan Emeterio Arrese plazatik abiatuta.

Ikaztegieta. Erretirodunek Gernikara egingo dute irteera hilaren 31n, urriko azken asteleheneko festa dela eta. Izena udaletxean eman behar da urriaren 28a baino lehen.

Tolosa. Minbiziauren aurkako martxaren aburuan, kalea bera gaitz askoren sendagai izan daitekeenez, kale ekintza bat egingo dute minbiziauren aurka, 17:30etik aurrera, Trianguloa plazan.

Tolosa. Mikologikaren barruan sukaldaritza tailerra izango da Kasino-ko elkarteko kideei zuzenduta. Sonia Tapia eta Xabier Martinez sukaldariaren eskutik, 20:00etan.

Tolosa. *Las mil y una noches 2, el desolado* filma eskainiko dute, zine forumean jatorrizko bertsioan, 19:15 eta 21:45ean, Leidor antzokian.

Zizurkil. Gure Esku Dago egiten ari den lanaren eta aurrera begirako asmoen berri emateko bilera izango da, 19:00etan, Plazida Otaño liburutegian.

EGURALDIA

GAUR



14° / 5°

BIHAR



15° / 8°

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eskualdeko berriak, Olatz Godoyren *Kale Kantoitik*, Jon Ander Galarragaren Ekokulturaren txokoa, Tolomendiren tarteak, Agurtzane Larrañagarekin makrobiotika eta lehiaketa. Deitu 10:45etik 10:55era 943 698038 telefono zenbakira edo whatsapp mezua bidali 687410033ra.

11:00-12:00. Hamaiketakoa.

Anoetaledea eta Villabona-Aiztondoko albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

Musika saioa.

16:00-18:00. Zebrabidea.

Goizeko saioak utzitako onena.

28 KANALA

12:30. Ertzak.

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

17:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

22:00. 28 Klip.

22:30. Ikusi Irratia. Ordiziarrock.

23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

+ FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Tlf: 943 67 06 48.

Gauekoa. Morant, R.

Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 06 48.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

makrobiotika bidalaria
solasaldia eguraldia
ataria iluna kokondo
(h)ari naizela azoka
hauspo artean
entzuteko jaioak

ataria
Irratia
107.6 fm
www.ataria.info



albisteak lehiaketa
kantazgora! artea
pasahitza errezeak
ekokultura kalekantoitik
eutsigolar! zebrabidea
psikologoa hamaiketakoa